



## AKORDIO PROPOSAMENA. UDALBATZARRA.

<p><b>Zarauzko Podemos-Equo-Berdeak. 2015eko udal akordio bat baliogabea dela aitortzeko eskaera (Aiako Amezti eraikinari ur-hornidura baimentzea). (2020HHHH0005 espedientea)</b></p> <p>Alkatetzaren 2015eko abuztuaren 17ko Dekretu bidez, Zarauzko Udalak baimena eman zien Aiako Amezti eraikinaren jabeei ur-horniduraren hargunea Zarauztik egiteko.</p> <p>2020ko martxoaren 13an Oihane Delgado zinegotziak, Zarauzko Podemos-Equo-Berdeak taldearen izenean, udal akordio hura baliogabea dela aitortzeko eskaera aurkeztu zuen. Alegatu dute ur-hargunea baimendu zitzaion eraikinak ez duela betetzen hirigintzako eta lurraldeko antolamendua, eta, hortaz, udal akordioa 39/2015 Legearen 47.1.f artikuluan aurreikusitako baliogabetasun kasuan sartuta dagoela (Administrazio Publikoan Administrazio Prozedura Erkidearena).</p> <p>Espedientearen tramitazioa etenda egon zen, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera.</p> <p>Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuko arduradunak eskaerari buruzko txostena egin du (287/2020, ekainaren 3koa). Horren arabera, ez dago arrazoirik akordioa baliogabea dela aitortzeko, eta eskaera ez tramitatzea proposatu du.</p> <p>Lurraldeko informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak (aho batez/gehiengoz)</p> <p><b>ERABAKIKO DU:</b></p>	<p><b>Zarauzko Podemos-Equo-Berdeak. Solicitud para declarar la nulidad de un acuerdo municipal de 2015 (autorización de suministro de agua al edificio Amezti de Aia) (Expediente 2020HHHH0005)</b></p> <p>Mediante Decreto de Alcaldía de 17 de agosto de 2015, el Ayuntamiento de Zarautz autorizó a la propiedad del edificio Amezti de Aia la acometida del suministro de agua desde Zarautz.</p> <p>El 13 de marzo de 2020, la concejala Oihane Delgado, en nombre del grupo Zarauzko Podemos-Equo-Berdeak presentó una solicitud para declarar la nulidad del acuerdo. Alegan que el edificio al que se autorizó la acometida de agua incumple la ordenación urbanística y territorial y que, por ello, el acuerdo municipal incurre en la causa de nulidad prevista en el artículo 47.1.f de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo de las Administraciones Públicas.</p> <p>La tramitación del expediente estuvo suspendida de conformidad con lo dispuesto en el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo.</p> <p>La solicitud ha sido informada por el TAG responsable del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente (informe 287/2020, de 3 de junio). El informe considera que no hay motivo para declarar la nulidad del acuerdo y propone no admitir a trámite la solicitud.</p> <p>El Pleno del Ayuntamiento, previo dictamen de la comisión informativa de Territorio, (por unanimidad/mayoría)</p> <p><b>ACUERDA:</b></p>
---	---



<p>Zarauzko Podemos-Equo-Berdeak taldearen izenean, Oihane Delgado zinegotziak 2015eko abuztuaren 17ko udal akordioaren baliogabetasuna aitortzeko aurkeztu duen eskaera ez tramitatzea.</p>	<p>No admitir a trámite la solicitud presentada por la concejala Oihane Delgado, en nombre del grupo Zarauzko Podemos-Equo-Berdeak, para que se declare la nulidad del acuerdo de 17 de agosto de 2015</p>
<p>Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuko txostenean oinarritu da akordioa; hona hemen arrazoibideak laburbilduta:</p>	<p>El acuerdo se fundamenta en el informe del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente cuyos razonamientos a continuación se resumen:</p>
<p>Egintza administratibo baten baliogabetasunaren adierazpena oso modu murriztailean aplikatu behar da. Kasu honetan ez da zirkunstantziarik antzematen udal akordioaren legezatasun-presuntzioa urratzeko.</p>	<p>La declaración de nulidad de los actos administrativos hay que aplicarla de forma muy restrictiva. En este caso no se aprecian circunstancias para quebrar la presunción de legalidad del acuerdo municipal.</p>
<p>Horretarako eskumena zeukan organoak hartu zuen erabakia (Alkatetza), eta prozedura egokia jarraituta izapidetu zen espedientea.</p>	<p>El acuerdo fue adoptado por el órgano que tenía competencia para ello (Alcaldía) y el expediente se tramitó conforme al procedimiento adecuado.</p>
<p>Amezti eraikina Aian dago, baina ez da legez kanpokoa ur-hornidura Zarautzik ematea. Berez, udal ordenantzan aurreikusita dago, eta antzeko beste kasu batzuk ere badaude.</p>	<p>El edificio Amezti está en Aia, pero no es ilegal que el suministro de agua se dé desde Zarautz. De hecho, está previsto en la ordenanza municipal y hay otros casos similares.</p>
<p>Amezti eraikinak betetzen ditu ur-hargunea baimentzeko funtsezko baldintzak. Aiako Udalak 2013ko urtarrilaren 25ean eman zuen eraikina egiteko obra-lizentzia, eta 2017ko azaroaren 13an lehen-erabilerako baimena eman zion.</p>	<p>El edificio Amezti reúne los requisitos esenciales para la autorización de la acometida de agua. El Ayuntamiento de Aia otorgó licencia de obra para construir el edificio el 25 de enero de 2013, y el 13 de noviembre de 2017 le otorgó la licencia de primera utilización.</p>
<p>Zarauzko Udalak ez dauka eskumenik beste udalerrri batean emandako lizentzia bat baliogabetzeko. Bestalde, ez da inon jasota agertzen ebazpen judicial batek lizentzia baliorik gabe utzi duenik.</p>	<p>El Ayuntamiento de Zarautz no es competente para anular una licencia otorgada en otro término municipal. Tampoco consta que la licencia se haya anulado por resolución judicial.</p>



ZARAUZKO UDALA

2020HHHHH0005

<p>Aipatu diren zirkunstantziengatik, bidegabea eta ausarkeria litzateke urhargunea ez baimentzea edo emandakoa kentzea.</p>	<p>Dadas las anteriores circunstancias sería injusto y temerario no autorizar la acometida de agua o revocar la concedida.</p>
--	--

2020ko ekainaren 5a

**Paul Muñoa Arizmendiarieta**  
**Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuko arduraduna**